

Bideoa ikusi aurretik, gida didaktiko honetako orrialdeen kopiak egin eta ikasleei banatzea proposatzen dizuegu. Horrela, ikasleek bideoan ikusiko dutenaren berri izango dute eta errazago ulertuko dute bideoan esaten dena. Bideo-gelako saioak ikasitakoaren berrikustea izan behar du. Ikasgelan egindako lana finkatzeko saioa, alegia.

Bideoan bi atal nagusi bereiz daitezke.

### **NOR -absolutiboa-**

#### **PROPOSAMENA**

Atalari dagozkion orrialdeetako kontzeptuak eta adibideak landu, letra lodiz azpimarratutakoei arreta berezia jarritz.

### **URDURITASUNA (I)**

Atal dramatiko luzea lantzeko zera proposatzen dizugu:

-Lau ikasleko talde txoak egin.

-Gidoia irakurri.

-Laburpena egin. Gidoiaren arabera, pertsonaien izaeraren deskribapena egin hamar bat lerrotan.

-Kritika. Gidoian irakurritakoa kontuan hartuta, aktoreen, gidoigilearen eta zuzendariaren lanaren kritika idatzia egin, hamar bat lerrotan.

## *NORK -ergatiboa-*

### *PROPOSAMENA*

Atalari dagozkion orrialdeetako kontzeptuak eta adibideak landu, letra lodiz azpimarratutakoei arreta berezia jarritz.

### *URDURITASUNA (II)*

Atal dramatiko luzea lantzeko zera proposatzen dizugu:

-Lau ikasleko taldetxoak egin.

-Gidoia irakurri.

-Iragarkia asmatu. Eskatu laukoteei, Oihanek bezala, iragarki bat asmatzeko eta gelakideen aurrean aurkezteko.

## *NORI -datiboa-*

### *PROPOSAMENA*

Atalari dagozkion orrialdeetako kontzeptuak eta adibideak landu, letra lodiz azpimarratutakoei arreta berezia jarritz.

### *URDURITASUNA (III)*

Atal dramatiko luzea lantzeko zera proposatzen dizugu:

-Lau ikasleko taldetxoak egin.

-Gidoia irakurri.

-Iragarkien balorazioa. Aurreko atalean laukoteek asmatutako iragarkien gainean iritziak emateko eskatu ikasleei.

# OINARRIAK EUSKARAZ ABIATZEKO

## 12. GELTOKIA

### *DEKLINABIDEA*      *Kasu gramatikalak*

Ikus ditzagun banan-banan.

#### *NOR -absolutiboa-*

NOR euskal deklinabidean oinarrizko kasua da. Gainerako deklinabide-kasu guztiak berarengandik eratortzen dira. NOR kasua subjektua zein objektua izan daiteke. Ikus dezagun.

*Miren* bakarrik dator perpausan NOR kasuan dagoena, *Miren*, subjektua da.

*Mirenek* bideoa dakar perpausan NOR kasuan dagoena, *bideoa*, objektua da.

NOR kasuak ez dauka kasu-markarik. Mugagabea bada, hitza artikulurik gabe doa:

### MUGAGABEA

Hainbat gizon dabil.  
Zenbait ardi galdu da.  
Neska asko ikusi dut.

Mugatu singularra bada, hitzak singularreko artikulua darama:

### MUGATU SINGULARRA -a

Gizona sartu da.  
Ardia dator.  
Neska badoa.

Mugatu plurala bada, hitzak pluraleko artikulua darama:

### MUGATU PLURALA -ak

Gizonak isildu dira.  
Ardiak erori dira.  
Neskak dabiltza.

NOR kasuko galdetzaileak hauexek dira:

NOR-NORTZUK-ZER-ZEIN-ZEINTZUK-ZENBAT

Jarraian erakusleak NOR kasuan ikusiko ditugu.

HAU-HORI-HURA HAUEK-HORIEK-HAIEK

Eta bukatzeko, pertsona-izenordeak NOR kasuan.

NI-HI-HURA-GU-ZU-ZUEK-HAIEK

Honez gero aspertu zarete hainbeste errotulu eta letrarekin. Ikus dezagun bada, denborarik galdu gabe, lehenengo adibidea.

## URDURITASUNA (I)

*Oihane bulego moduko batean dago, urduri.*

Mikel atearen zirrikitutik begira dago.

**OIHANE** Nortzuk etorri dira?

**MIKEL** Nortzuk? Hobe nor galdetzen baduzu, Iker bakarrik etorri da-  
eta.

**OIHANE.** Iker bakarrik?

*Oihanek erlojuari begiratzen dio.*

**OIHANE** Bost minutu falta dira. Zein Iker? Iker Campoplano ala Iker  
Landazelai?

**MIKEL** Iker Landazelai. Proiektorea prest dago.

**OIHANE** Zer esan duzu?

**MIKEL** Proiektorea prest dagoela.

**OIHANE** Proiektorea.

**MIKEL** Aizu, Oihane urduri zaude.

**OIHANE** Bai, urduri nago.

**MIKEL** Lasaitu neska! Ez dira otsoak eta.

*Beste aldean jende hotsa entzuten da.*

*Mikel berriro atera doa, zirrikitutik begiratzerd.*

*Atea irekitzen da eta Nerea sartzen da.*

**OIHANE** Zenbat enpresaburu daude?

**NEREA** Bost.

**OIHANE** Zenbat falta dira?

**NEREA** Beste bost. Ui! Oso urduri zaude Oihane.

**MIKEL** Bai, oso urduri dago.

**OIHANE** Bai, arrazoia daukazue. Oso urduri nago.

*Mikel zirrikitutik begiratzen du.*

**MIKEL** Etorri dira enpresaburu guztiak.

*Oihane*k arnasa hartzen du.

**OIHANE** Zein txosten eramango dut?

**NEREA** Gorria, noski, urdina nirea da!

**OIHANE** Jakina, gorria.

*Mikel* kutun bat ematen dio *Oihaneri*.

**MIKEL** Hartu, Oihane.

**OIHANE** Zer da hori?

**MIKEL** Hau nire kutuna da. Zorte ona emango dizu.

**OIHANE** Eskerrik asko Mikel. Orain lasaiago nago.

*Oihane*k arnasa hartzen du. Erlojua begirutzen du.

**OIHANE** Joan behar dut. Banoa.

**MIKEL** Aupa, neska!

**NEREA** Oratu zezena adarretatik.

**Proiektorea** prest dago. -subjektua, NOR-

(Ni) **Urduri** nago. -subjektua, NOR-

Etorri dira **enpresaburu guztiak**. -subjektua, NOR-

Bilatu testuan NOR kasuko beste subjektuak.

## *NORK -ergatiboa-*

NORK kasua edo ergatiboa euskararena da, bereziki. Inguruko hizkuntzetan ez dago horren antzekorik. Ikus dezagun.

Jon goiz esnatu da. Jonek lan egin du.  
Bietan Jon da subjektua.

Jon goiz esnatu da.  
Perpaus iragangaitza da; hau da,  
ez dauka objekturik subjektuaren ekintza jasateko.  
Horregatik deklinatu dugu NOR kasuan. Jon.

Jonek lan egin du.  
Perpaus iragankorra da; hau da,  
badauka subjektuaren ekintza jasateko objektua.  
Objektu hori *lan* da. Horregatik deklinatu dugu NORK kasuan. Jonek.

Beraz, euskaraz bi subjektu-mota bereizten dira.

NORK kasua *-k* markaren bitartez gauzatzen da.

Mugagabea bada hitza artikulurik gabe doa:

### MUGAGABEA -(e)k

Hainbat gizonek ez daki.  
Zenbait ardik darama.  
Neska askok ikusi du.

Mugatu singularra berezko artikuluari -k marka erantsiz gauzatzen da:

### MUGATU SINGULARRA -ak

Gizonak ekarri du.  
Ardiak jan du.  
Neskak eman dio.

Mugatu plurala osatzeko singularreko *a* artikulua *e* bilakatuko dugu eta hari -k marka erantsiko.

### MUGATU PLURALA -ek

Gizonek isilarazi dute.  
Ardiek zapaldu dute.  
Neskek dakarte.

NORK kasuko galdetzaileak hauexek dira:

NORK-NORTZUEK-ZERK-ZEINEK-ZEINTZUEK-ZENBATEK

NORK kasuko erakusleak hauexek dira:

HONEK-HORREK-HARK HAUEK-HORIEK-HAIEK

NORK kasuko pertsona-izenordeak hauexek dira:

NIK-HIK-HARK-GUK-ZUK-ZUEK-HAIEK

Letra-zopa alde batera utzita adibidea ikusiko dugu.

## URDURITASUNA (II)

*Nerea eta Mikel bulkegoan, lehengo lekuan.*

*Alboko gelatik Oihaneren ahotsa entzuten da.*

**OIHANE** Gurasoek umeak kalera atera dituzte. Amak egunkaria hartzen du eta aitak hozkailutik zuku-potoa ateratzen du. Kalean umeek oihu egiten dute. Ama, egunkaria utzita, balkoira joaten da. Aitak zukua bi edalontzitarra ateratzen du. Bi edalontziak hartuta, balkoira joaten da. Amak eta aitak topa egin eta, ezpainak bustita, umei begiratzen diete. Irudi horren gainean agertuko da zuku-potoa. Ahotsak esango du: "une maitagarriez gozatzeko zukua".

*Mikel eta Nereak, Oihanek esandakoa antzezten dute.*

**NEREA** Ongi azaldu du, ezta?

**MIKEL** Bai, niri gustatu zait.

**NEREA** Orain ez du ematen urduri dagoenik.

**MIKEL** Ez, ez, lasaitu da. Badakizu, behin martxa hartzen duenean Oihanek ...

*Oihane agertzen da bat-batean. Mikel eta Nerea zur eta lur begiratzen diote.*

**OIHANE** Entzun al duzue?

**NEREA** Bai, entzun dugu. Baina, zer egiten duzu hemen? Bukatu al duzu?

**OIHANE** Ez, ez dut bukatu, komunera noa. Gustatu zaizue?

**MIKEL** Bai, asko gustatu zaigu. Oso ondo hitz egin duzu.

**NEREA** Eta enpresaburuei zer itxura hartu diezu?

**OIHANE** Antzik ere ez diet eman. Serio-serio daude. Isil-isilik.

*Oihane komunera joaten da. Mikelek erlojua begiratzen du.*

**MIKEL** Bostak eta erdiak dira.

*Nereak belarriak adi jartzen ditu eta isiltzeko keinua egiten dio Mikeli.*

**NEREA** Enpresaburuak isilik daude.

**MIKEL** Bai, hori seinale ona da ala txarra?

**NEREA** Ez dakit. Auskalo.

*Oihane sartzen da berriro eta presaka pasatzen da Nerea eta Mikelen aurretik.*

**Gurasoek umeak kalera atera dituzte. -subjektua, NORK-**

**Amak egunkaria hartzen du. -subjektua, NORK-**

**(Zuk) Oso ondo hitz egin duzu. -subjektua, NORK-**

**Bilatu testuan NORK kasuko beste subjektuak.**

### ***NORI -Datiboa-***

NORI kasuak, nor eta nork kasuek bezala, aditzean eragin zuzena dauka. Hau da, NORI kasua erabiliz gero, aditza aldatu egiten da. Ikus dezagun..

**Jonek liburua eraman du.**

NORI kasua sartu nahi badugu, -esaterako, *lagunari*- aditza aldatu egin behar dugu.

**Jonek liburua eraman dio lagunari.**

NORI kasua *-ri* markaren bitartez gauzatzen da.

Mugagabea bada hitza artikulurik gabe doa:

### MUGAGABEA -(r)i

Makina bat gizoni erori zaio.  
Ardi askori ipini diote.  
Hainbat neskari entzun diot.

Mugatu singularra hitzaren berezko artikuluari *-ri* marka erantsiz gauzatzen da:

### MUGATU SINGULARRA -ri

Gizonari eman dio.  
Ardiari ilea moztu diozu.  
Neskari gustatzen zaio.

Mugatu plurala osatzeko singularreko *a* artikulua *e* bilakatuko dugu eta hari *-i* marka erantsiko.

### MUGATU PLURALA -ei

Gizonei arraina ipini diete.  
Ardiei belarra eman diete.  
Neskei okela jarri diete.

NORI kasuko galdetzaileak hauexek dira:

NORI-NORTZUEI-ZERI-ZEINI-ZEINTZUEI-ZENBATI

NORI kasuko erakusleak hauexek dira:

HONI-HORRI-HARI HAUEI-HORIEI-HAIEI

NORI kasuko pertsona-izenordeak hauexek dira:

NIRI-HIRI-HARI-GURI-ZURI-ZUEI-HAIEI

Jarraian adibidea dator. Ea bada.

## URDURITASUNA(III)

(7) - ABERE  
*Nerea eta Mikel bulegoan, lehengo lekuan. Nereak bere erlojua begiratzten du. Seiak dira. Oihaneren jarduna entzuten da.*

**OIHANE** Hori izan da dena. Zerbait galdetu nahi badidazue, gustu handiz erantzungo dizuet. Dena dela txostenean daukazue nire telefonozenbakia.

*Ahots nahasi mordoa entzuten da aulki eta mahai-kolpe hots artean.*

**NEREA** Azkenean, bukatu da. Niri ez zait oso luzea egin. Zuri, Mikel?

**MIKEL** Niri ere ez.

**NEREA** Aurkezpen egokia iruditu zait.

**MIKEL** Bai, niri ere bai. Urduri samar hasi da, baina oso seguru amaitu du.

**NEREA** Enpresaburuei, ziurtasuna gustatzen zaie.

**MIKEL** Jakina, inbertitzeko eskatzen diegu; beraz, segurtasuna eskaini behar diegu. Hori logikoa da.

**NEREA** Ea zortetik daukagun eta lan pila ematen digun enpresabururen batek.

**MIKEL** Batek edo bik edo hiruk edo denek.

**NEREA** Bai, bai, bai.

*Beste aldean diosalak entzuten dira. Oihane sartzen da bulegora.*

*Nereak eta Mikelek txaloka hartzen dute.*

**OIHANE** Jota nago. Entzun al duzue? Zer iruditu zaizue?

**MIKEL** Guri aurkezpena oso ona iruditu zaigu. Bikaina.

**OIHANE** Nerea?

*Nereak ez dio erantzuten, baiezko keimua egiten dio.*

**MIKEL** Oihane, zuri esker lan pila bat lortuko dugu. Baina orain goazen hemendik zerbait edatera. Egarri naiz.

**OIHANE** Bai, mesedez goazen hemendik. Ni ere egarri naiz.

**NEREA** Itxaron, Patxiri deituko diot.

**OIHANE** Patxiri, orain?

**NEREA** Bai, esango diot bazkari on bat prestatzeko.

**MIKEL** Oso ideia ona. Esaiozu langostinoak prestatzeko.

*Nereak telefonoa hartzen du eta zenbakia markatzen hasten da.*

**Enpresaburuei, ziurtasuna gustatzen zaie.**

-zehir-objektua, NORI-

**(Haiei) Inbertitzeko eskatzen diegu.**

-zehir-objektua, NORI-

**Guri aurkezpena oso ona iruditu zaigu. Bikaina.**

-zehir-objektua, NORI-

**Bilatu testuan NORI kasuko beste zehir-objektuak.**

## Liburuak

ZUBIRI, Hilari ; ZUBIRI, Entzi:  
*Euskal Gramatika Osoa,*  
Didaktiker, Bilbo, 2000.

ZUBIZARRETA, Aitor; DORRONSORO, Mikel; ZUBIMENDI,  
Josemari:  
*Gramatika Gaitasuna Lantzen,*  
Euskara Zerbitzua, Glotodidaktika-lanak. Gasteiz, 2000.

EUSKALTZAINDIA:  
*Euskaltzaindiaren arauak,*  
Euskaltzaindia, Bilbo, 1994-2000.

## Orri elektronikoa

[www.hiru.com](http://www.hiru.com)